

## **ZUMAIAKO UDALA**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA**

### **2004KO URRIAREN HOGEITA BATEAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHIZKO BATZARRALDIKO AKTA.-**

Zumaian, bi mila eta laugarren urteko urriaren hogeita batean, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ezohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta era onez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren bazkideak etorri ziren:

### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.  
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.  
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.  
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.  
Andoni ETXANIZ OSA jauna.  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.  
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.  
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.  
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.  
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

Herritarrak etorri dira.

## **1.-GALVANIZADOS OLAIZOLA SA. ISURKETAK IBAIAN: BADAEZPADAKO NEURRIAK.**

Bilkura eratuta, Alkate-Lehendakari andreak adierazi du, gertatutakoa ikusi ondoren, udalaren borondatea isurketa gehiagorik ez izatea dela. Ez da gure asmoa enpresaren aurka egitea, ez langileen aurka egitea, ezta inori kalte egitea ere. Baina gertatu denaren aurrean, neurriak hartu behar dira, berriz gerta ez dadin.

Ondoren, gertaeren berri eman du: irailaren 20an izandako isurketa, egindako administrazio izapideak, adostutako akordioak, IHOBeko teknikaria izendatzea. Ondoren, urriaren 15eko isurketak azaldu ditu, enpresaren arduradunekin izandako bilera eta Hirigintzako batzorde informatzailearen txostena.

Gertatutako guztia gardenkiekin proiektatutako argazki erreportajearen bidez erakutsi da: isurketen larritasuna, uraren kolorea, hildako espezieak eta uren azterketaren datu konparatiboak.

Administrazio izapideari irailaren 21eko 217/2004 Dekretuaren bidez ekin zitzaion. Dekretu hartan honako hau ebazten zen:

1.-GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresari badaezpada jakinaraztea sugarrezko galbanizazioa itxi egingo dela, enpresak isurketa ilegala eragin duen instalazioko arazoak eta hutsegiteak ebazteko beharrezko lanak egiten ez dituen artean, eta isurketa gehiago ez izateko beharrezko ekintza guztiak egingo direla.

2.-GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresari eskatzea bere egoera legezatu dezala, Jarduera proiektua aurkeztuta, eta beharrezko neurri guztiak har ditzala, sei hil baino gutxiagoko izapide prozesuan.

3.- Gertaerak Ministerio Fiskalari jakinaraztea, Azpeitiko epaitegian, gertaerek legeren bat hausten duten ikusteko.

Dekretua 2004ko irailaren 22an jakinarazi zitzaien, eta adierazi espedientearen berri emango zitzaizela prozeduran interesa zutenei eta haien ordezkariiei, udaletxe honetan, bulego ordutegian. Eta 10 eguneko epea eman zitzaien egoki irizten zituzten alegazioak, dokumentuak edo informazioak eta frogak aurkezteko.

Zegokion epean eta moduan, 2004ko urriaren 1ean, Jose Maria Iturralde Perez de Arenaza jaunak, GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, idatzizko alegazioa aurkeztu zuen:

1.- Isurketa ontzi aldaketa gainbegiratzeaz arduratzen den langilearen akatsak eragin zuela diote, baina ez da pentsatu behar, ezein kasutan, isurketa nahita egin zela, edo sistemaren segurtasun neurrien akatsen batek eragin zuela.

2.- Isurketaren ondorioei dagokienez: orain arte ez dago ingurumenari kalteak eragin dizkiola ziurtatzen duen froga teknikorik.

3.- Hartu beharreko zuzenketa neurriei dagokienez: 2004ko urria amaitu aurretik, ibairako isurketa berriak prebenitzeko eta ekiditeko Lanen proiektu teknikoa aurkezteko konpromisoa hartu dute. Lana edukitze ontzi bat egitea izango da; horrela, edozein istripu izatean, isurketa bilketa hustutegi batera bideratuko da, malda egoki baten bidez, eta, horrela, ez da, inolaz ere, ubide publikora iritsiko.

Era berean, lanak berehala egiteko konpromisoa hartu dute.

4.- GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresaren baimen ofizialak: beste baimen batzuen artean, Jarduera baimena du, eskaera egin eta dokumentazio osagarria aurkeztu zenetik sei hileko epea baino gehiago igaro delako, dagokion ingurumen organoak aurkako txostenik jakinarazi gabe.

**Idatzizko alegazioak aztertuta, honako hau erabaki da:**

1.- Ez da onartzen isurketaren arrazoia langilearen akatsa denik. Segurtasun sistemak halako ondorioak eragingo dituen giza akatsik ez gertatzeko mekanismoak izan behar ditu (argiak, alarmak...). Ondorioz, berriz ere ibaira isurketarik ez egiteko beharrezko neurriak hartu behar dira.

Proiektu teknikoak ibairako isurketa berriak prebenitzeko eta eragozteko beharrezko neurriak jasoko ditu.

2.- Isurketaren ondorioei dagokienez, ingurumenari egindako kalteak nabarmenak dira, hori frogatzen duten txosten teknikorik izan gabe ere, eta horren adibide da uren eta ibaiko lohiaren eta hondarren kolore laranja, baita arrainen heriotza ere (berrehun inguru), honako espezieena: lazunak, platuxak, aingirak, etab.

3.- Hartu beharreko neurri zuzentzaileak: onartu egiten dira.

4.- Jarduera baimena:

Udal agiritegiak aztertu ondoren, honako hau agertzen da:

- a) 2002ko urtarrilean, GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresak Jarduera proiektua aurkeztu zuen.
- b) Proiektu hori bideratu egin zen eta, besteren artean, Osasun sailera igorri zen.
- c) 2002ko apirilean, Osasun sailak dokumentazio osagarria eskatu zuen.
- d) 2002ko azaroan, eskatutako dokumentazioaren zati bat igorri zuen GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresak. Lurrean eta itsasoan isurketak egiteko baimena emateke geratzen da.
- e) 2004ko maiatzaren 31n, GALVANIZADOS enpresak Isurketa baimenaren eskaera aurkezten du.

Ikusitakoagatik eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta prozedura eskatzaileari egotz dakiokkeen arrazoiagatik geldiarazi denez, eta ez da administrazioaren isiltasuna dela eta Jarduera baimena emantzat ulertzen, udaletxean Baimena aurkeztu zela sei hilabete igarota.

61. artikuluan xedatzen denez, Jarduera baimenaz gain (eta bertan ezarritako neurriak hartuta eta aldeko ikuskapen akta eginda), sailkatutako jarduera hasi aurretik Irekitzeko lizentzia izateko baldintza "sine qua non" da.

GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresak ez du beharrezkoa den Irekitzeko baimena.

Espedientearen izapideak egiten ari diren bitartean, enpresa beretik Narrondo ibaira beste bi isurketa ilegal egin direla hauteman da, 2004ko urriaren 15ean.

Gertaerak oso larriak direnez, 2004ko urriaren 18an bilera egin zen enpresaren ordezkariekin eta, 48 orduko epean, honako dokumentazio hau aurkezteko eskatu zitzaien:

1.- Saneamenduaren egungo egoera islatuko duen plano topografikoa.

2.- Putzua husteko baimena eskatu behar izatea eta ibaira zuzenean lotutako sareak ixtea.

Jarduerak arautzeari dagokionez, urriaren amaierarako aurkeztu beharko dituzte:

.- Isurketak eragiten dituen instalazio arazoak konpontzeko proiektu teknikoa. Ingurumen legeak errespetatuko dituen Osoko saneamenduaren proiektua ere izan behar du.

.- Kutsatutako lurra saneatzeko proiektua.

Hori guztia udaleko Hirigintza batzordeak emango duen txostenari kalterik egin gabe.

Zegokion epean eta moduan, lehen puntuan eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuten, baina udalari ez zitzaion nahikoa iruditu, planoek saneamenduaren egungo egoera ez zutela islatzen uste baitu.

Gaia Hirigintza batzordean eztabaidatu zen, eta proposatutako neurriak oso larriak direla ikusita, Alkatetzak ezohizko batzarraldia deitzea erabaki zuen, hasitako espedientea ebazteko.

Aurreko guztia kontuan izanik eta otsailak 27ko 3/1998ko Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko Lege Orokorra, azaroak 26ko 30/92 Legea, zeinaren bidez Prozedura Administratibo bateratua, eta Administrazio

Publikoen Eraentza Juridikoa onartzen duen legea eta Eraentza Lokaleko eraentzari buruzkoek xedatutakoan oinarriturik,

Bozketa eginik, eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi kideen aho bateko adostasunarekin, ERABAKI DA:

LEHENENGOA: 2004ko urriaren 1ean, Jose Maria Iturralde Perez de Arenaza jaunak, GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresaren izenean eta hura ordezkaturik, aurkeztutako alegazioaren zati bat onartzea.

Enpresak isurketa ilegalak eragin dituen instalazioko arazoak eta hutsegiteak ebazteko proiektua aurkeztu beharko du, baita ibaian isurketa gehiago ez izateko beharrezko ekintzak ere.

Behin udalak onartuta, berehala ekin beharko die lanei.

BIGARRENA: Galvanizados enpresarenugarrezko galbanizazio jardueraren etetea, GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresak honako baldintza hauek betetzeko behar duen epean:

A) Zumaiako Udalaren aldeko abala ematea, 1.200.000 €koa, hilabeteko epean honako hauek aurkeztu eta egingo dituela bermatzeko:

1.- Jardueran erabiltzen diren likidoak eta substantzia kutsatzaileak eramateko hodi eta instalazio guztien egungo egoeraren eta egoera errearen plano topografikoa.

2.- Kutsatutako lurra saneatzeko eta inguruak garbitzeko proiektua aurkeztea.

3.- Beharrezkoak diren presazko lanak egitea (lan proiektua aurrez udaletxean aurkeztuta); udalak izendatutako teknikoen iritziz, isurketa berriak izateko aukerak eragotzi beharko dituzte.

Udalak lan eta proiektu horiei onarpena emango dieten tekniko adituak izendatuko ditu.

Hil horretan beste isurketa bat egon dela nabaritzen bada, bermea automatikoki atxikiko du Zumaiako Udalak.

B) Zumaiako Udalaren aldeko abala ematea, 1.200.000 €  
koa, honakoak bermatzeko:

1.-Jarduera baimena izapidetu eta lortzea eta, ondoren,  
Irekitzeko baimena izapidetu eta lortzea.

2.- Lurra garbitzeko obrak egitea, A) 2 puntuan aipatutako  
proiektuaren arabera.

Bermea berehala atxikiko da, sei hiletan Irekitzeko baimena  
lortu ez bada, edo garbiketa lanik egin ez bada.

Hil horietan beste isurketa bat izaten bada, automatikoki  
atxikiko du bermea Zumaiako Udalak.

Bermeen kudeaketak eragindako gastuak, proiektuek eta  
obrek eragindakoak eta aipatutako guztia kontrolatzeko udalak  
izendatutako teknikoen ikuskapen gastuak Galvanizados Olaizola  
SA enpresak ordaindu beharko ditu.

HIRUGARRENA: Udalak, GALVANIZADOS OLAIZOLA SA  
enpresak aurkeztu beharreko Proiektu teknikoa gainbegiratzeko peritu  
aditua izendatuko du, eta, horretarako, enpresak lantegiaren inguruko lurra  
prestatu eta garbitu beharko du.

LAUGARRENA: GALVANIZADOS OLAIZOLA SA enpresari  
eskatzea agiri osagarriak aurkeztu ditzan, Jarduera baimena izapidearekin  
eta ezarrirako zuzenketa neurri guztiekin jarraitu ahal izateko.

BOSGARRENA: 217/2004 Dekretuaren laugarren puntua ontzaz  
ematea, 2004ko urriaren 15eko isurketaren dokumentazioa espedienteari  
emendatuta.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortziak direnean, eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

ALKATEAK IO

IDAZKARIAK